

Denboraren makina
Zabor-jana
historian

❑ *Ezpalak*
❑ *Argitalpenak*

❑ *Denbora-pasak*
❑ *Makina bat kontu*

Ihesi
Hondarribia,
Gipuzkoako herri
harresitua

ARGIA


erdiko kaiera

kultura eta aisia

Logela multimedia Kale kulturari mokaduka

Jauregi zaharrez jositako Elorrio historia berriaren sorleku da. Hainbat arrazoi medio, giro polita dago sorkuntza lanerako. Beti bor-bor dago eltzea. Hortik atera zen 2001ean Logela Multimedia proiektua, zapore berriak eskaintzen dituen jakia. Osagaiak: musika eta dantza, antzezpen tanta batzuk eta irudiarekin jolas ugari. Orain dela gutxi, azken sei urteotan egindako zenbait lan bildu dituzte DVDan, eta platera osatzeko, *Mokaua* diskoa sartu dute pakete berean.

UNAI BREA





Irudia, musika, abangoardia

EZ DA MUSIKA taldea. Logela Multimedia, izenak ez du zalantzarako beta handirik ematen, multimedia sormena lantzen duen kolektiboa da, euren berba zehatzak erabilia. Egia da sormen lan horretan elementu askok aurkitu dutela habia, musikak ere bai, baina Logelaren espezialitatea bideo sorkuntza da. Irudia da enbor nagusia, eta gainerakoa adarrak, adar sendoak izanagatik ere.

“Ez da musika taldea”, esan du beraz Ander Garaizabalek, gurekin egindako solasaldiaren hasieran. Elorrioko Arriola Kultur Aretxean egin dugu hitzordua berarekin. Hantxe aurkituko dituzue sarri, musutruk lanean, Logelako kideak: Ander eta Imanol Garaizabal anaiak, Karlos Gomez eta Gorka Molero. Elorrioko kaleetan hazi, hezi eta helduak, euren kantaren batek dioen bezala, eta denak 30 urteren bueltakoak.

“Logela Multimedia gehienbat Imanolek sortua da. Bera da bideo sortzailea, graffiti egiteki dator, diseinu grafikoan lan egiteki...”. Gainera, Imanol Garaizabal Logelako *pro* bakarra da, taldea du lanbide. Gainerako hirurek beste zeregin batzuetatik ateratzen dute soldata. Beste hari batek ere lotzen ditu Imanol ez besteak: musikan aritutakoak dira, eta zenbait kasutan badabilta oraindik. Gorka Mole-rok gitarra jotzen du 2006ko Bilbao Hiria lehiaketa irabazi duen Yakuza rock taldean, eta Karlos Gomez baxu-jotzailea Tunnel 483 taldean dabil, pop soinueta lerratuago.

Non Demontre musika taldeak taularatu zuen Logelari egotzi dakioken lehenengo ikuskizuna. “Gorka eta biok gaztetatik genbiltzan Non Demontren”, azaldu du Ander Garaizabalek. Imanolen parte hartzeaz, *Bela-rritakora sartu* multimedia kontzertua sortu

"Euskal Herrian ez da ekarpen berrien aldeko apusturik egiten"

Logela Multimedia baduka Elorriori zer eskertua. "Herriak kultur mugimendu garrantzitsua dauka, eta hori lagungarria da", dio Ander Garaizabalek. Epizentro nagusia Arriola Kultur Aretoa da; orain dela hamabost urte sinatutako hitzarmenaren arabera, aretoaren kudeaketa ekonomikoa Udaletxearen eta Arriola Kultur Elkartearen ardurapekoa da, erdibana. Eguneroko jarduna, berriz, elkartearen esku dago.

Besteak beste, musika taldeek euren probasiaoak egiteko lokalak eskaintzen ditu Arriola aretoak. "Suerte hori daukagu, hemen zeozer egin daiteke –uste du Garaizabalek–, agintariak beren modura funtzionatzen uzten diete gazteei. Hala behar luke beti, kultur aretoetan, gaztetxeetan... baldin eta lan irizpide batzuk badaude. Ez dadila egon kultur interbentzionismorik erakundeen aldetik".

Logelakoaren iritziz, baina, salbuespenetakoa da Elorrio. "Euskal Herrian ez da apustu seriorik egiten ekarpen berriak egiten dituzten egitasmoei laguntzeko. Areto publikoak egon badaude, baina ez dakit nik oso publikoak diren, herrietan dauden proiektuak kontuan hartzen dituzten. Ez da aretorik zabaltzen jendeak saiakera berriak egin ditzan. Ze, bitartekoak ipiniz gero, gauzak aurrera ateratzen dira, ideiak hor daude eta".

zuten. Artean, musika zen nagusi, "baina orduan konturatzen hasi ginen irudiaren inguruko formula honek ematen dituen aukerez".

Graffiti eta breakdancea

Bigarren ikuskizunean –*Obe handi bat*– bide berria urratzen jarraitu zuten: Logela Multimedia kideez gain –emankizun haren kariaz sortu zuten izena, hain zuzen–, graffiti-gileek, break dantzariak eta aktoreek parte hartu zuten. Ordurako, agerikoa zen Imanolek berearekin ekarritako hip hop kulturaren eragina, estetikan soinuan bezainbat. "Geuk ere, Non Demonstreren azken diskoan –jarraitu du Anderrek–, hip hop kanta bat sartu genuen, berez rock taldea ginen arren. Azkeneko kanta zen gainera. Sinbolikoa ere bada". Non Demontre 2002an desagertu zen, Logela Multimedia izena ezartzeaz batera. Edo behar bada, bata bestearen ondorengoa da. Edonola ere, Logelak musika eremuan egindako lanak rap eta hip hop kutsu argia dauka, nahiz eta rock zantzuak oraindik badiraute, "oso gustukoa dugu eta".

Obe handi baten, interakzioa lantzen hasi ziren. "Diziplinartekotasuna, interakzioa... Horrelako hitzak erabiltzen dira gaur egun, baina guk ez dugu horretaz ulertzen. Guretzat, interakzioa zerbait praktikoa da, teknika bat, harreman bat: musikariak, aktoreak, dantzariak eszenatokian egiten dutena bat etortzea irudiarrekin. Nik besoa mugitu eta atzeko pantailan zerbait gertatu". Pantaila –orain arte esan ez badugu haxe da une egokia–, ezinbestekoa baita, izan, Logelaren emanaldi batean.

Olaberriako zirkuitua

Gida eskola Karting-a




Gainera auzoa, Z/G
 20212 Olaberria
 ☎ 943 16 08 62
www.vilarinomotor.com
info@vilarinomotor.com

Kultur klonazioaz kezkatuta

"Mundu kultural klonikoaren bila tsunamiak irentsi gaitzala, itxuraz eta ohiturez, pentsamenduz, ideiez... mami ta azalez nahi gaitu igoalak!". Hala dio *Klonk* kantaren pasarte batek. Izen bereko ikuskizunean, fotokopiagailu erraldoi batek break dantzariak klonatzen ditu. "Fikzioa da, klonazioa ezinezkoa delako gaur egun, saiakera batzuk egin diren arren", dio Ander Garaizabalek, "baina kultur klonazioa posiblea da, eta konturatu gabe ematen. Badaukagu kultur globalizazioaz kezka, bai". Kezka horren adierazlea da, apika, euren lanetan maiz ikus daitekeen motiboa: fotokopiagailua.

Klonk abestiak berak adierazten digu Logelakoen jarrera horren aurrean: "Telebistak, musika komertzialak, gorputz perfektuak ez gaitu seduzitzen, eskapate

erraldoiek, modek, neoizko argiek ez gaituzte itsutzen...". Eta geroxeago: "Hau ez da Dollyren gauerdiko eztula, tela gabeko aterkiaren hezurdura, gure modura kale kultura, kalea txikitatik baita gure partitura".

Logelako kideek kaletar aldarrikatzen dituzte euren buruak, baina ez hiri handi bateko kaletar. "Elorrión, nekal munduak garrantzia dauka, gero eta ahulagoa bada ere, tamalez. Eta guk lotura estuagoa dugu baserri mundu horrekin hiri handiekin baino". Garaizabalen ustez, herri giroa oso aproposa da sormenerako. "Hirietako jendeak berak dio han oso trinkoak direla joerak, dena dago aldezturik aurretik ezarrita. Herrietan, berriz, gauza interesgarri gehiago egiten da, ideia berri gehiago sortzen da". Klonazioak ez ditu herriak guztiz konkistatu oraindik.

Jendaurreko hirugarren ikuskizuna *Klonk* izan zuten, Addictos breakdance taldearekin elkarlanean. Espainiar estatuko talderik garrantzitsuena omen. Garaizabalek gogoratzen duenez, ezkontza interesgarri hartan, "beraiek koreografiak egiten zituzten, eta guk multimedia".

Break on Stage

Break dantzarekin garatu duten harremana orain arte aipatutakotik harago doa. Urte batzuk daramatzate, berbarako, *Break on Stage* lehiaketan parte hartzen. "Europar aretoko breakdance lehiaketa da, aurtengo sei-garrenez egin da. Guk irudiak ipintzen ditugu, eta aurtengo honetan kantak ere sartu ditugu. Baina hori, beharbada, Logelaz bereizita dago. Hemen, Arriola Kultur Aretuan, hasi ginen horrekin lanean, eta haziz joan den egitasmoa da. Durangon eta Bilbon egin izan ditugu emanaldi batzuk, arrakasta handiz".

Hasieran esan bezala, lan horrek guztiak emandakoaren zati bat jaso dute DVD mami-tsu batean eta harekin, Durangoko Azokan aurkeztu zuten batera *Mokana* diskoa zabaldu. Musika hutsa beraz, edo erroetara itzulia. Horregatik beharbada, egitasmo hori ere Logela Multimediatik bereizi nahi du Garaizabalek, egile berberak izan arren. "Zerikusia dauka Logelarekin, baina proiektu independente modura ateratu dugu. CDan *Mokana*, DVDan Logela. Egia esan, bageneukan hainbat abesti sortuta, Logelarekin egindako lanetik aparte, eta kaleratzeko gogoz genbiltzan".

Doinuetan eklektiko, hitzetan sendo

Gogo horrek bultzatuta ipini dute, honenbestez, musika hutsezko mokadutxoak irudia nagusi zen mahai gainean. Hip hop, musika elektronikoa, rock ukitu batzuk... "Musika desberdin samarrak entzutea gustuko duenarentzat egokia da. Ez da musika komertziala, ez ditugu erraz saldu eta kantatzeko moduko leloak egiten, baina era berean, pentsatzen dugu musika atsegin dela gurea, eta entzumen fina edukiz gero edonori gustatu ahal ziola". Ander Garaizabal, bateria-jotzailea ez ezik, kantuen egilea da

Gorka Molerorekin batera, eta hitzak ere bere lumari zor zaizkio. Ondo landutako hitzak dira, kritikak, eguneroko kontuetan oinarritutakoak... Eta euskarazkoak.

"Guretzat naturala da euskaraz jardutea, hori delako gure hizkuntza. Eta bageneukan euskaraz zeozer berri eskaintzeko gogo. Hip hopean, esaterako, oso gutxi jolastu da euskararekin, ez dira erabili euskarak eskaintzen dituen aukerak, erritmo aldetik, metrika aldetik...". *Mokana*-ko kantak konposatzeko erritmoan oinarritu dira, "eta esaldiekin jolastu". "Ez dugu gitarra hartu eta haren doinuari jarraitu. Bateria jo dugu gordinik, hori grabatu dugu eta horren gainean kantatu". Den-dena euren kabuz ekoitzia; hauei ez zaie antzematen aberasteko grina bizirik. "Geuk sortu eta geuk banatu. Helburua dirutan egindako inbertsioa berreskuratzea da, ez gehiago. Oso merke ipini ditugu salgai CDa eta DVDa". 10 euroan, nekez mokadu merkeagorik, zenbateraino asegaria den kontuan izanda: ahozurienari gomendatzeko modukoa ez ezik, begiei ere plazer ematen diotenetakoa. ■

